

GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA

1. Oharra.- Fundazioaren jarduera

2018ko uztailaren 17an, FUNDACIÓN CAMBIO CLIMÁTICO DE GIPUZKOA izendapenarekin, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenak Fundazio bat eratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearekin bat etorritik, denbora mugagabez. Horren identifikazio fiskalaren zenbakia G75203687 da.

Fundazio hau, hain zuzen ere, Foru Aldundiari Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategiaren garapenean laguntzeko berariazko eginkizunarekin eratu da, Gipuzkoako Gobernantza Klimatiko eta Energetikoan ezarritako hitzetan. Hain zuzen ere, bere eginkizunak ondoko hauek izango dira:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntzea Gipuzkoan Klima Aldaketaren analisisan, behaketan eta inaktuaren kontrolean.
- b) Diagnostiko doitu bat erdiestearen alde lan egitea eta eragileen esparru zabal bat ekintzara bultzatzea, klima-aldaketa gutxitzearren eta horretara egokitzearren.
- c) Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategiak egiten dituen aurrerapenak ebaluatzeke eta jarraipena egiteko prozesua bermatzea.

2. Hori lortzeko, Fundazioak, besteak beste, ondorengo jarduerak egin ahal izango ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz nazioartean garatzen ari diren ekimen guztiak ezagutzea, hautatzea eta horiekin bat egitea, Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategia garatzera bideratzeko helburuz, Gipuzkoako ingurumenak, pertsonak eta enpresek iraunkortasun bat izan dezaten, eta lurraldean gizarte eta ekologia arloan trantsizio atzeraz ezin baterako sustatzaile gisa balio izan dezan.
- b) Klima-aldaketak ingurune fisikoan, natura-ingurunean, ingurumen-kalitatean, gizarte eta ekonomia arloko jardura eta erabileren garapenean eta herritarren pertzepzioan dituen inaktuak behatu, aztertu, sentorizatu eta kontrolatzea.
- c) Eragileen talde bat sortzen, koordinatzen eta dinamizatzen laguntzea, aipatutako Estrategian eta bere bederatzi helburuetan zehaztutako klima-aldaketaren aurka lan egin dezaten. Unibertsitatearen, ikerlarien, enpresen eta administrazioen arteko topagune gisa jokatu du klima-aldaketaren aurkako borrokaren eremuan, eta hautapen-irizpideak eskainiko ditu, berrikuntza sustatu eta erakarriko du, startupak ahalbidetuko ditu, eta Circular Recycling HUB bidez ekonomia zirkular baterako trantsizioa eta eredu energetiko berri baterako trantsizioa bultzatuko du, Renewable Energy HUB bidez (Smart Grids, Smart Cities).
- d) Arlo honetan informazio eta hezkuntzarako zentro gisa eratu eta jokatu du, herritarrei informazioa eta ezagutzak modu grafikoan eta ulergarrian eskainiz eta jakinaraziz, Ingurumenaren Monitorizazio Sistema baten bitartez.
- e) Informazioa eta dokumentazioa bildu eta Foru Aldundiari informazioa eta aholkuak emateko gomendio eta irizpideak prestatuko ditu, erabakiak hartzea hobetzeko eta aipatutako Estrategiaren berrikuspenean, jarraipena eta kontrola egiteko.

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

f) Foru Aldundiak alor honekin loturik eskatzen dizkion guztiak.

3. Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide propio pertsonifikatuaren izaera du, eta enkarguak eman ahal izango dizkio, kontratuen kontsiderazio juridikorik eduki gabe, kasu bakoitzean dagozkion organoek erabakitzen dituzten hitz eta baldintzetan, eta Herri Administrazioei aplikagarri zaien erregimen juridiko eta administratiboarekin bat etorritz.

Fundazioak ezingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen lehiaketa publikoetan parte hartu, nahiz eta, beste inolako lehiatzailek ez dagoen kasuetan, horien xede den prestazioa gauzatu dezala eskatu ahal izango zaion.

2018ko urriaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko Sailburuak erabaki zuen "GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOAREN FUNDAZIOA/FUNDACION CAMBIO CLIMATICO DE GUIPUZCOA" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea f-433 erregistro-zenbakiaz.

Fundazioak ez ditu ikuskatzeko betebeharraren betekizunak betetzen, baldintzetako bi betetzen ez dituelako elkarren segidako bi ekitalditan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 19/2016 Legearen 33. artikuluan ezarritakoaren arabera, nahiz eta kontuak kanpoko ikuskaritzaren mende jartzen dituen.

Ekitaldi ekonomikoa 2019/01/01ean hasi eta 2019/12/31n amaitu da.

2.Oharra.- Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

1. Irudi leiala

Honekin batera doazen 2019. ekitaldiko Urteko Kontuak Fundazioak 2020ko apirilaren 30n zituen kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuta prestatu dira, eta bertan, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorriari egokitzeko arauak onartzen dituen 1491/2011 Errege Dekretuan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balioespen-irizpideak aplikatu dira, halaber, 2013ko martxoaren 26ko ICACen ebazpena, Entitateen Kontabilitate Plana onesten duena, baita kontabilitate alorrean indarrean dauden gainerako lege-xedapenak ere, eta horiek Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala erakusten dute.

Urteko Kontu hauek, Egoera Balantzea eta Emaizten Kontua osatzen dituzten agirietan jasotako zenbakiak euroetan adieraziak daude beren dezimalekin, eta Memoriakoak euroetan dezimalik gabe.

Irudi leial hori erakusteko orduan ez da salbuespenezko arrazoirik egon kontabilitate alorreko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

Honekin batera doazen Urteko Kontuak Patronatuaren Batzordeak onetsi beharko ditu, eta inolako aldaketarik gabe onetsiak izatea espero da.

2. Aplikatu diren nahitaezko kontabilitate-printzipioak

Nahitaez aplikatu beharrekoak diren eta honekin batera doazen finantza-egoeretan eragin nabarmena duten kontabilitate-printzipio eta arau guztiak hartu dira kontuan. Ez dago inolako kontabilitate-printzipiorik, nahitaezkoa izanik aplikatu ez denik.

3. Ziurgabetasunaren balioespen eta estimazioak dituen alderdi kritikoak

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

Fundazioak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa oinarritzat hartuta egin ditu bere finantza-egoerak, COVID-19aren gaur egungo egoera kontuan hartuta eta hark ekonomian oro har eta Fundazioan bereziki izan ditzakeen ondorioak ahaztu gabe. Horrela, bada, esan dezakegu ez dagoela jarduerarekin jarraitzeko arriskurik, memoria honen 15. oharrean zehazten den bezala, eta beraz, ez dago hurrengo ekitaldiko aktibo eta pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak eragiteko arrisku garrantzitsurik.

Honekin batera doazen urteko kontuetan Patronatuko kideek egindako estimazioak erabili dira inoiz edo behin, bertan erregistratuta ageri diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk zenbatzeko. Funtsean, estimazio horiek aktibo materialen bizitza erabilgarriari buruzko estimazioak dira.

Baliteke estimazio horiek, urteko kontu hauek egin ziren egunean aztertutako gertaerei buruz eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin arren, etorkizunean izan daitezkeen gertaera batzuen ondorioz hurrengo ekitaldietan aldatu behar izatea (gorantz nahiz beherantz), baina hori aurrera begira egingo litzateke, etorkizuneko galera eta irabazien kontuetan estimazio-aldaketa horrek dituen ondorioak aitortuz.

4. Informazioa konparatzea

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatuz eratorritako ondorioetarako, 2019ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurreko ekitaldiaren kontuekin batera aurkezten dira. Konparagarritasun-ondorioetarako, kontuan izan behar dugu Fundazioa 2018ko ekitaldian eratu zela eta ekitaldia hamabi hilabetetik beherakoa izan zela.

5. Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak

Ez da aurkezten balantzearen bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

6. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak

Ekitaldian ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan.

7. Corrección de errores

2019ko ekitaldiko urteko kontuetan ez dago ekitaldian zehar hautemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

3. Oharra.- Ekitaldiko Soberakina aplikatzea

2019ko ekitaldiko emaitza hutsaren hurrengoia izan da; beraz, ezin da banatu.

4. Oharra.- Erregistrorako eta balioespenerako arauak

Ekitaldirako urteko kontuak prestatzeko orduan Fundazioak erabilitako balioespen-arau nagusiak, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, ondorengo hauek izan dira:

1. Ibilgetu materiala eta ukiezina

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

Ibilgetu materiala bere eskurapen-kostuaren arabera balioetsia dago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

Konponketa eta mantentze-lanen gastuak horiek gauzatzen diren ekitaldiko emaitzen kontura erregistratzen dira.

Amortizazioa linealki kalkulatzeko da kostu-balioen gainean, ehuneko nahikoak erabiliz eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, aktiboak beren bizitza erabilgarrian barrena amortizatu daitezke.

Aplikatu beharreko ehunekoak hauek dira:

Aplikazio informatikoak % 25

Beste Ibilgetu ukiezina % 20

Informazioaren prozesaketarako ekipak % 25

Altzariak % 14

Beste ibilgetu material bat % 10

2. Finantza-ibilgetua

Fundazioak mugaegunaren arabera sailkatzen ditu bere zorrak, eta epe laburreko zortzat hartzen ditu 12 hilabetetik beherako mugaeguna duten zenbatekoak.

a) Finantza-aktiboak:

Finantza-aktibo bat era askotako aktiboa izan daiteke: eskudirua, beste enpresa bateko ondare-tresna bat, eskudirua eta beste finantza-aktibo bat jasotzea eragiten duen kontratuko eskubide bat edo hirugarrengoei aldeko baldintza egokietan finantza-aktiboak edo -pasiboak trukatzeko eragiten duena.

Ondorengo sailkapen honen eginkizuna Sozietatearen finantza-aktiboen balioespena egitea da:

Eskudirua eta beste baliabide likido baliokide batzuk:

Honekin batera doan egoera-balantzearen epigrafe honen azpian kutxa eta bankuetan dagoen eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk, kutxan berehala gauzatu daitezkeenak eta beren balioan aldaketarik gertatzeko arriskurik ez dutenak, erregistratzen dira.

Maileguak eta kobratzeko dauden kontu-sailak

Epe laburreko mugaeguna dutenak eta kontratuko interes-tasarik ez dutenak, baita langileei onartutako aurrerapen eta kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean ezinbestekoak diren gastuak ere, beren balio nominalaren arabera balioetsiko dira.

b) Finantza-pasiboak:

Jaulkitako, sorrarazitako edo bere gain hartutako finantza-tresnak finantza-pasibotzat sailkatuko dira, osorik edo horien zati bat, betiere horien errealitate ekonomikoarekin bat etorriz enpresarentzat kontratu-betebehar bat badira, zuzenean edo zeharka, eskudirua edo bestelako finantza-aktiboren bat emateko, edo finantza-aktiboak edo -pasiboak potentzialki onuragarriak ez diren baldintzetan trukatzeko.

Sozietatearen finantza-pasiboen balioespena ondorengo sailkapenari jarraiki egingo da:

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

Zorrak eta ordaindu beharreko kontu-sailak

Epe laburreko mugaeguna duten eta kontratuko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketak, horien zenbatekoa epe laburrera ordaintzea espero denean, beren balio nominalaren arabera balioetsiko dira.

3. Balio erantsiaren gaineko zerga

Fundazioa bazkide-izaerako establezimendu pribatua da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 37/92 Legera egokitzen duen 102/92 Foru Dekretuko 20. artikuluko bat 12. apartatuan jasotako salbuespenak aplikatzen zaizkio, bere kideei eskaintzen dizkien zerbitzuen prestazioetarako, eta horiek argi eta garbi helburu filantropikoa eta zibikoa dute. Era berean, entitateak zuzenean bere kideei egindako eta bere berariazko helburuak lortzeko burututako zerbitzuen eta ondasun-emate osagarriak horri lotuak eta salbuetsiak egongo dira, aipatutako 102/92 Foru Dekretuko 20. artikuluko bat 12. apartatuan ezarritako hitzetan. Halaber, horri lotuak eta ez-salbuetsiak egongo dira barne-eragiketen salbuespena arautzen duen 20. artikuluko bat apartatuan jaso ez diren edo zerrendatuak ez diren gainerako eragiketa guztiak. Horrenbestez, Fundazioak Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasaten du eta ez du horren kenkaririk egingo, eta beraz, inbertsio-ondasunen edo zirkulatzailaren eskurapen-prezioaren zati izango da, zerga horrek zergapetutako eragiketen xede direnean, eta hala, hainbanaketaren araua aplikatuko da, betiere kenkaria egiteko eskubidea sorrarazten duten zerbitzuen prestazioak eta aipatutako eskubide hori gauzatzea ahalbidetzen ez duten beste eragiketa batzuk batera eginez gero. (9. Oharra)

4. Sozietateen gaineko zerga

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezesnasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari lotua dago Fundazioa. Fundazioak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ditu erakundearen helburuetan laguntzeagatik jasotako errentak, ondare-zuzkidura kontzeptupean egindako ekarpenak edo dohaintzak ere barne; bazkideek, kolaboratzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarri eta higiezinetik datozen errentak, hala nola sozietateen irabazietan izandako partaidetzak eta dibidenduak, interesak, kanonak eta alokairuak; eskurapen edo eskualdaketetatik datozen errentak, ondasun edo eskubideen edozein titulurengatik, eta zerga-araudiarekin bat etorritz, erakundeari esleitzen zaizkionak eta aurreko errenta salbuetsi horietakoren batetik datozenak.

Sortutako gainerako errentak 3/2004 Foru Arauaren 12. artikuluekin bat etorritz ordainduko dute zerga, % 10eko zerga-tasaren arabera.

5. Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapean-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala sortzen denean, horietatik ondorioztatzen den moneta- edo finantza-korrontea zein unetan sortzen den kontuan izan gabe. Nolanahi ere, zuhurtziaren printzipioari jarraiki, Fundazioak ekitaldiaren itxiera-egunean gauzatutako irabaziak bakarrik kontabilizatzen ditu, eta aldiz, bai aurreikus daitezkeen arriskuak eta bai galerak ere, baita unean unekoak ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

6. Ingurumen-izaera duten ondare-elementuak

Patronoek berretsi dute Fundazioak ez duela ingurumen izaerako erantzukizunik, gasturik, aktiborik, ezta hornidurarik eta kontingentziarik ere, beraren ondarearekin, finantza-egoerarekin eta emaitzekin loturik esanguratsuak izan daitekeenik.

7. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Kapitaleko diru-laguntza ez-itzulgarriak, hortaz, emandako zenbatekoaren arabera balioesten dira, eta hastapenez ondare garbiari zuzenean egotzen zaizkion diru-sarreratzat hartzen dira eta diru-laguntza horien bidez finantzatutako aktiboek epealdi horretan izandako balio-galeraren proportzioan egotziko dira emaitzetan, balio-galerarik izan ezin dezaketen aktiboak izan ezean, eta azken kasu honetan, inbentarioan horien baja edo inorenganatzea gertatzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Diru-laguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen direnean, diru-sarreratzat hartuko dira finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian.

Erakunde publikoetatik, defizitaren konpentsazio bidez patronoetatik eta beste batzuetatik jasotakoak diru-laguntza, dohaintza eta ustiapen-legatuen artean barneratuko dira ekitaldiko diru-sarrera gisa beren sortzapenaren arabera, eta bereizi egingo dira, batetik, fundazioaren berezko jarduerarekin loturik daudenak, horiek jardueraren diru-sarreratzat barneratuz, eta bestetik, merkataritza-jarduerarekin loturik daudenak, beste diru-sarrera gisa barneratuz.

5.Oharra.- Ibilgetu materiala eta ukiezina

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren eta immaterialaren kontu desberdinetan izandako mugimenduak honako hauek izan dira:

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilgetu Ukiezina	24.805,00	4.477,00	-----	29.282,00
Ibilgetu Materiala	26.751,92	24.122,46	-----	50.874,38
IBILG. GUZTIRA:	51.556,92	28.599,46	-----	80.156,38
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilg. Ukiez. Akz. Am.	226,58	6.712,38	-----	6.938,96
Ibilg. Mater. Akz. Am.	197,47	9.208,58	-----	9.406,05
TOTAL AMORTIZ.:	424,05	15.920,96	-----	16.345,01
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
K.B.G. Ibilg. Ukiez.	24.578,42	-----	-----	22.343,04
K.B.G. Ibilgetu Materiala	26.554,45	-----	-----	41.468,33
K.B.G. GUZTIRA:	51.132,87	-----	-----	63.811,37

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren eta immaterialaren kontu desberdinetan izandako mugimenduak honako hauek izan dira:

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilgetu Ukiezina	---	24.805,00	---	24.805,00
Ibilgetu Materiala	---	26.751,92	---	26.751,92
IBILG. GUZTIRA:	---	51.556,92	---	51.556,92
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilg. Ukiez. Akz. Am.	---	226,58	---	226,58
Ibilg. Mater. Akz. Am.	---	197,47	---	197,47
TOTAL AMORTIZ.:	---	424,05	---	424,05
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
K.B.G. Ibilg. Ukiez.	---	-----	-----	24.578,42
K.B.G. Ibilgetu Materiala	---	-----	-----	26.554,45
K.B.G. GUZTIRA:	---	-----	-----	51.132,87

6.Oharra.- Finantza-aktiboak

Administrazio Publikoarekin, kredituak, ez dira islatzen atal honetan.

Fundazioaren balantzearen epe luzeko aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2019ko abenduaren 31n, honako hau da:


Epe luzeko finantza-inbertsioak:

	Saldo Inicial	Entradas	Salidas	Saldo Final
Bulegoko alokairu-fidantzak	23.776,80	---	---	23.776,80
TOTALES:	23.776,80	---	---	23.776,80

Fundazioaren epe laburreko balantzearen aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2019ko abenduaren 31n, honako hau da:

Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk:

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente



	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azkeneko saldoa
Diruzaintza	241.406,24	391.759,12	547.936,17	85.229,19
GUZTIOAK:	241.406,24	391.759,12	547.936,17	85.229,19

Fundazioaren balantzearen epe luzeko aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2018ko abenduaren 31n, honako hau da:

Epe luzeko finantza-inbertsioak:

	Saldo Inicial	Entradas	Salidas	Saldo Final
Bulegoko alokairu-fidantzak	---	23.776,80	---	23.776,80
TOTALES:	---	23.776,80	---	23.776,80

Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk:

Fundazioaren epe laburreko balantzearen aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2019ko abenduaren 31n, honako hau da:

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azkeneko saldoa
Diruzaintza	---	415.323,16	173.916,92	241.406,24
GUZTIOAK:	---	415.323,16	173.916,92	241.406,24

7.Oharra.- Finantza-pasiboak


Administrazio Publikoarekin, zorrak, ez dira islatzen atal honetan.

Sozietatearen balantzearen pasiboko epe luzerako finantza-tresnak, kategorien arabera sailkatuak, honako hauek dira:

Zorrak eta epe luzeko ordaintzeko abiatzeak	2019	2018
Epe lezeako beste pasibo batzuk	2.610,29	---
GUZTIOAK	2.610,29	---

Fundazioaren balantzearen aktiboko finantza-tresnen informazioa honako hau da:

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente



Zorrak eta epe motzerako ordaintzeko abiatzeak	2019	2018
Epe motzerako beste pasibo batzuk	---	7.388,64
Hainbat hartzekodun	185.432,34	26.219,57
Pertsonala	7.089,64	3.701,17
GUZTIOAK	192.521,98	37.309,38

Epigrafe honetan, emandako zerbitzuengatik eta inbertsio-ondareengatik sortutako saldo hartzekodunak erregistratzen dira.

8.Oharra.- Funts propioak

Funts propioen kontuek 2019eko ekitaldian izan duten mugimendua honako hau izan da:

	Funts soziala	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakina	Funts propioak guztira
Saldoa 2019-01-01	30.000	---	---	30.000
Gehitze sortze-hornidurak	---	---	---	---
18.12.31ko saldoa	30.000	---	---	30.000

Fundazio-zuzkidura

2019ko abenduaren 31ra Fundazioaren Sortze-Hornidura dago beraren konstituzio datarako fundatzaile egindako hasierako ekarpen osatuta.


9.Oharra.- Egoera fiskala

Fundazioaren IFK G-75203687 da. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari loturik dago Fundazioa (ikus 4.4 oharra)

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honen osaera, 2019eko abenduaren 31n, honako hau da:

Admin-ekiko beste Kreditu/zor batzuk. Publikoak	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna
Ogasun Publikoa, diru-laguntzengatik zordun	195.873,60	---
Ogasun Publikoa, PFEZren ondorioz	---	13.990,02
Gizarte Segurantzaren erakundeak	---	3.728,99
GUZTIOAK	195.873,60	17.719,01

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente



Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honen osaera, 2018eko abenduaren 31n, honako hau da:

Admin-ekiko beste Kreditu/zor batzuk. Publikoak	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna
Ogasun Publikoa, PFEZren ondorioz	---	5.326,36
Gizarte Segurantzaren erakundeak	---	1.416,84
GUZTIOAK	---	6.743,20

Memoria hau aurkeztu den datan oraindik zabalik daude azken bi ekitaldiak, zerga-agintariak ikuskatu beharrekoak.

Ezin dira objektiboki zehaztu zerga-agintariak Fundazioarentzat ikuskatzeko modukoak diren ekitaldi guztiak berraztertzearen ondorioz etorkizunean izan litezkeen pasiboak eta kontingentziak. Alabaina, zuzendaritzaren iritziz, sor litekeen pasiboak ez luke eragin esanguratsurik izango erantsitako finantzen egoera-orrietan, eta, horrenbestez, ez da inongo hornidurarik erregistratu pasivo eta kontingentzia horiei aurre egiteko.

10.Oharra.- Sarrerak eta gastuak

A) Sarrerak

Beste sarrerak- Ustiapen-transferentziak	2019	2018
GFA	552.620,72	142.545,95
Guztira, Beste sarrerak eta Ustiapen-transferentziak	552.620,72	142.545,95

B) Gastuak

Ustiapeneko gastuak	2019	2018
Ordainsariak	6.137,25	15.445,84
Publizitateta eta komunikazioa	37.277,10	12.137,93
Alokairuak	43.808,88	8.701,91
Bestelako gastuak eta aseguro-primak	386.544,58	90.232,76
Guztira ustiapeneko gastuak	473.767,81	126.518,44
Pertsonal-gastuak	2019	2018
Soldatak	165.427,29	13.282,12
Gizarte-segurantza	41.512,73	2.350,66
Beste gastu sozial batzuk	7.427,58	202,08
Guztira personal-gastuak	214.367,60	15.834,86
Amortizaziorako hornidura	2019	2018
Immobilizatutakoko Amortización	15.920,96	424,05
Guztira, amortizaziorako hornidura	2019	2018

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

11.Oharra.- Transferentziak, diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Hona hemen epigrafe honetan 2019ko ekitaldian izandako mugimendua:

Euro	Saldoa 2018/01/31	Berriak Dirulaguntzak	Eskualdatzea Emaiza	Saldoa 2019/12/31
Kap. diru-laguntza	51.132,87	35.000,00	(15.920,96)	70.211,91
Kap. Aktib.ustip diru-laguntza	191.130,46	----	(135.502,69)	55.627,77
Guztira	242.263,33	35.000,00	(151.423,65)	125.839,68

Hona hemen epigrafe honetan 2018ko ekitaldian izandako mugimendua:

Euro	Saldoa 2018/01/01	Berriak Dirulaguntzak	Eskualdatzea Emaiza	Saldoa 2018/12/31
Kap. diru-laguntza	0,00	44.700,00	(424,05)	44.275,95
Subv. Exp.act Cap	0,00	191.130,46	0,00	191.130,46
Ustiap. diru-laguntza aktib.	0,00	6.856,92	0,00	6.856,92
Guztira	0,00	242.687,38	(424,05)	242.263,33

Ekitaldian kapitaleko diru-laguntza gisa erregistratu da Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako zenbatekoa, guztira 35.000,00 eurokoa, eta nagusiki, ekipo informatikoak eta behatokia erosteko xedatu da.

Jasotako urte anitzeko ustiapen-transferentzien zenbatekoa 552.620,72 euro dira. 2019. ekitaldiari 552.620,72 euro dagozkio eta horien xehetasuna memoria honen 10.

2018ko ekitaldian erabili ez den eta kontu batera (132) eskualdatu den ustiapen-diru-laguntzaren zatia ekitaldiko emaitzara eskualdatu da (746.1) kontuaren bidez, 135.502,69 €-ko zenbatekoan, 2019ko ekitaldian egindako ustiapen-gastuari aurre egiteko.

Ekitaldian emaitzetara egotzitako zenbatekoa 15.920,96 euro dira.

12.Oharra.- Entitatearen helbura soziala. Ondare-elementuak helburu propioetara aplikatzea. Administrazio-gastuak.

a) Entitatearen jarduerak

2019an egindako jarduerak honakoak dira:

- Lehen lau urteetarako kudeaketa-plan estrategiko bat egitea eta onartzea, patronatuaren eta plana ezarri behar duten teknikarien eguneroko kudeaketa-lanari zentzua emateko eta lan horiek bideratzeko. Hori ez da eragozpen izango, ordea, patronatuak, gerora, plana bera eta planaren neurriak aldatu ahal izateko, Fundazioaren helburua hobeto lantze aldera.
- Behin-behineko egoitza martxan jartzea (Miramongo parke teknologikoan dago).

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

- Web-orria diseinatzea eta martxan jartzea, eta irudi korporatiboa zehaztea.
- Edukiak lantzea eta Behatokia martxan jartzea.
- Renewable Energy HUBen edukiak lantzea eta martxan jartzea.
- Circular Recycling HUBen edukiak lantzea eta martxan jartzea.
- Agente nagusiak eta erakunde kolaboratzaileak identifikatzea eta haiekin harremanetan jartzea.
- Klima-aldaketaren inguruko nazioarteko, estatuko, erkidegoko eta tokiko foro eta sareetan parte hartzea.
- Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Hasierako hedakuntza-ekintzak, agente publiko eta pribatuekin harremanetan jartzeko. AKGF martxan jartzea

b) Jarduerengatiko 2019 ariketako aurrekontuaren kitapena

Ondoren, 2019 ariketari buruzko Aurrekontuaren kitapena azaltzen da:

Erabateko aurreikuspena benetan erabilia baliabide ekonomikoak:

Gastuak / Inbertsioak	Zenbatekoa		
	Aurreikusia	Egina	Desbideratzea
Gastuak laguntzengatik eta beste batzuegatik	---	---	---
a) Diru-laguntzak	---	---	---
b) Diruzkoak ez diren laguntzak	---	---	---
c) Lankidetzengatiko eta gobernu-organoengatiko gastuak	---	---	---
Aldaketa amaitutako produktuen eta fabrikazioan dauden produktuen izakinetan	---	---	---
Ustiapen Kontsumoak	---	---	---
**Pertsonaleko gastuak	350.356,50	214.367,60	135.988,90
**Jardueraren beste gastu batzuk	632.264,22	473.767,81	158.496,41
Ibilgetua amortizatzea	0,00	15.920,96	-15.920,96
Hondatzea eta emaitza ibilgetua besterentzeagatik	0,00	0,00	0,00
Finantza-gastuak	0,00	0,00	0,00
Arrazoizko balio-aldaketak finantza-tresnetan	0,00	0,00	0,00
Aldaketak trukean	0,00	0,00	0,00
Hondatzea eta emaitza finantza-tresnak besterentzeagatik	0,00	0,00	0,00
Kudeaketa- eta administrazio-gastuak	0,00	0,00	0,00
Irabazien gaineko zergak	0,00	0,00	0,00
Gastuen guztizko partziala	982.620,72	704.056,37	278.564,35
Ibilgetua eskuratzea (Ondare Historikoko higiezinak izan ezik)	35.000,00	28.599,46	6.400,54
Ondare Historikoko Ondasunak izan ezik	0,00	0,00	0,00
Finantza-inbertsioak eskuratzea	0,00	0,00	0,00
Merkataritzakoa ez den zorra kitatzea	0,00	0,00	0,00
Inbertsioen guztizko partziala	35.000,00	28.599,46	6.400,54
GUZTIRA	1.017.620,72	732.655,83	284.964,89

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

GASTUAK/INBERTSIOAK	Jarduera Generala	Jarduera Observ	Jarduera Econ-Circ	Jarduera Trans.Ener	Jarduerak guztira
Gastuak laguntzengatik eta beste batzuegatik:	---	---	---	---	---
a) Diru-laguntzak.	---	---	---	---	---
b) Diruzkoak ez diren laguntzak.	---	---	---	---	---
c) Lankidetzengatik eta gobernu-organoengatik gastuak.	---	---	---	---	---
Aldaketa amaitutako produktuen eta fabrikazioan dauden produktuen izakinetan.	---	---	---	---	---
Ustiapen kontsumoak	---	---	---	---	---
**Pertsonaleko gastuak	57.729,11	36.852,22	77.357,61	42.428,66	214.367,60
**Jardueraren beste gastu batzuk	216.622,50	170.664,33	66.677,49	19.803,49	473.767,81
Ibilgetua amortizatzea	15.761,75	33,94	125,27	---	15.920,96
Hondatzea eta emaitza ibilgetua besterentzeagatik	---	---	---	---	---
Finantza-gastuak	---	---	---	---	---
Arrazoizko balio-aldaketak finantza-tresnetan	---	---	---	---	---
Aldaketak trukean	---	---	---	---	---
Hondatzea eta emaitza finantza-tresnak besterentzeagatik	---	---	---	---	---
Kudeaketa- eta administrazio-gastuak	---	---	---	---	---
Irabazien gaineko zergak	---	---	---	---	---
Gastuen guztizko partziala	290.113,36	207.550,49	144.160,37	62.232,15	704.056,37
Ibilgetua eskuratzea (Ondare Historikoko higiezinak izan ezik)	19.840,46	1.768,45	6.990,55	---	28.599,46
Ondare Historikoko Ondasunak eskuratzea	---	---	---	---	---
Finantza-inbertsioak eskuratzea	---	---	---	---	---
Merkataritzakoa ez den zorra kitatzea	---	---	---	---	---
Inbertsioen guztizko partziala	19.840,46	1.768,45	6.990,55	---	28.599,46
ERABILIKO DIREN BALIABIDEEN AURREIKUSPENA GUZTIRA	309.953,82	209.318,94	151.150,92	62.232,15	732.655,83

Diru-sarreraren desbideraketak konpentsatu egin dira, neurri batean, honako atal hauetan egindako gastu txikiagoen desbideraketekin:

Honako desbideratze hauek izan dira gastuetan:

- "Beste gastu batzuk" atalean 294.485,31€ko desbideratze positiboa izan da, gastu erreala aurreikusitakoa baino beherakoa izan baita. Honako hauek dira atal honetan egindako gastu esanguratsuenak:
 - Kontsumoa, bulegoko materiala eta erkidegoko gastuak, 24.697,08 euroko desbideratze positiboa gertatu baita.
 - Pertsonal-gastuak, 135.989,00 €ko desbideratze positibo bat izan da.

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente



- o Diru-sarreretan, lokomozio gastuetan eta kalte-ordainean, 37.302,15 euroko desbideratze positiboa gertatu baita.
- o Konponketa- eta kontserbazio-gastuak, gasturik izan ez delako eta, beraz, desbideratze positiboa 20.564,00 €-koa izan delako.
- o Alokairu eta fidantza gastuetan, 41.619,12 €ko desbideratze positibo bat izan da.
- o Zerbitzu profesionaleko gastuak eta enpresa espezializatuak, 43.225,31 €ko desbideratze positibo bat izan da.
- o Gainerakoa ustiapen-gastuak, 8.911,35 €ko desbideratze negatibo bat izan da.

Egindako inbertsioetan 6.753,29 €ko desbideratze positiboa izan da, egindako inbertsioa balioetsitakoa baino txikiagoa izan delako.

Erakundeak lortu beharreko guztizko Baliabide ekonomikoen aurreikuspena eta benetakoak.

SARRERAK	Aurreikusia	Egina	Desbideratzea
Bazkideen eta afiliatuen kuotak; erabiltzaileen ekarpenak; promoz, babesleen eta lankid. diru-sarrerak	50.000,00	0,00	-50.000,00
Ondarearen ondorio diren errentak eta beste diru-sarrera batzuk	0,00	0,00	0,00
Jarduera propioetako salmentak eta zerbitzu-eskaintzak	0,00	0,00	0,00
Merkataritza-jardueretako ohiko diru-sarrerak	100.000,00	0,00	-100.000,00
Sektore publikoko diru-laguntzak	832.620,72	552.620,72	-280.000,00
Kapital-transferentzia-emaitzaren inputazioa	0,00	15.920,96	15.920,96
Ustiapen-transferentzien emaitzari egozteak	0,00	135.502,69	135.502,69
Ekarpen pribatuak	0,00	0,00	0,00
Finantzatutako diru-sarrerak	0,00	12,00	12,00
LORTU BEHARREKO DIRU-SARREREN AURREIKUSPEN GUZTIRA	982.620,72	704.056,37	-278.564,35

BESTE BALIABIDE BATZUK	Aurreikusia	Egina	Desbideratzea
Fundatze Zuzkidurarako Ekarpinak	---	---	---
Inbertsiorako diru-laguntzak	35.000,00	35.000,00	---
Transferentzia hainbat urtetarako gastuak	---	---	---
Ondare Historikoko Ondasunak saltzea	---	---	---
Finantza-inbertsioak saltzea	---	---	---
Egindako zorrak	---	---	---
Onartutako beste finantza-obligazio batzuk	---	---	---
LORTUTAKO BESTE BALIABIDE BATZUK GUZTIRA	35.000,00	-100.502,69	135.502,69

c) Ondare-elementuak helburu propioetara aplikatzea

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. Artikulua araber, fundazioaren sarreraren %70 gutxienez fundazio-borondateak zehaztutako helburuak betetzera zuzendu beharko da, eta, gainerakoa, administrazio-gastuak endu ondoren, fundazio-zuzkidura handitzera. Artikulu honek aztergai dituen errenta edo sarreraren proportzioa haiek lortzen diren unetik hasi eta hiru urteko epean zuzendu ahal izango du Fundazioak dagokion xedera.

Fundazioak lortutako sarrera garbien % 100 zuzendu du fundazio-borondateak zehaztutako helburuak betetzera.

d) *Administrazio-gastuak y diru-sarrerak helburu*

2019ko ekitaldian, 85.984,00 euroko administrazio-gastuak egin ditu fundazioak (21.437 euro aurreko

Administrazio-gastuak						
Ariketa	Muga> bien artean		Ondarearen administrazioak zuzenean eragindako gastuak (2)	Babesleen gastuak (3)	EKITALDIAN SORTUTAKO ADMINISTRAZIO-GASTUAK, GUZTIRA (4) = (2) + (3)	Gainditu (-) Ez gainditu (+) gehieneko muga (1)- (4)
	Diru-sarreraren % 20 29. artikulua 9/2016 Legea Eta art. 31 115/2019 Dekretua (1)	Funts propioen % 5				
2019	140.809	1.500	85.984	-	85.984	54.825
2018	28.594	-	21.437	-	21.437	7.157

Errenten eta diru-sarreraren xedearen betetze-maila

Ariketa	Lortutako diru-sarrera garbiak	Bideratu beharreko errenta		FUNDAZIOAREN HELBURUAK BETETZEKO ERABILI DIREN BALIABIDEAK	HELBURUAK BETETZEKO ERABILI DIREN BALIABIDEEN APLIKAZIOA *						
		Zenbatekoa	%						2018	2019	Ordaintzeke dagoen zenbat.
2018	142.970,00	100.079,00	0,7	194.114,87							-
2019	704.044,37	492.831,06	0,7	646.672,24					194.114,87	646.672,24	-
TOTAL	847.014,37	592.910,06		840.787,11	0	0	0	0	194.114,87	646.672,24	--
		T	RD	T \$ (A)	T \$	T \$	T \$	T \$	T \$	T \$	

(*) Ikus 115/2019 Dekretuaren 30. artikulua (115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslearen eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena).

Ordaintzeke dagoen zenbat

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

	Zenbatekoa			Guztira
1. Helburuak betetzeko gastuak*				602.151,82
	Funts propioak	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	Zorra	
2. Helburuak betetzeko inbertsioak - (2,1+2,2)	0	44.520,42	0	44.520,42
2.1. Ekitaldian egindakoak		28.599,46		28.599,46
2.2. Procedentes de ejercicios anteriores		15.920,96	0	15.920,96
a) Aurreko ekitaldietan kitatutako zorrak				
b) Aurreko ekitaldietako diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak egoztea		15.920,96		
Guztira (1 + 2)				646.672,24

Helburuak betetzeko gastuak

Langileen gastua	214.367,60
Kanpo Zerbitzuak	473.767,81
Administrazio-gastuak	(85.983,59)
TOTAL	602.151,82

13.Oharra.- Lotutako alderdiekiko eragiketak

Lotutako alderdiekin ez dago lizentziei buruzko akordiorik, finantzaketa-akordiorik, erosteko edo saltzeko aukeretarako konpromiso irmorik, lotutako zenbait alderdik erabiliko dituzten ondasun eta zerbitzuen produkzioarekin erlazionatutako kostuak banatzeko akordiorik, diruzaintza kudeatzeko akordiorik eta zorrak barkatzeko eta horiek preskribatzeko akordiorik. aurreko oharretan azaldu eta zehaztu dira.

2019an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 587.620,72 €-ko transakzioak egin zituen guztira, eta 195.873,60 € kobratzeko daude oraindik.

14.Oharra.- Bestelako informazioa

Ekitaldian zehar, Fundazioak lau langile izan ditu batez beste, eta 2018an, berriz, bakarra.

2019ko ekitaldiko auditoretza-kostua 3.100 eurokoa izan da, eta 2018ko ekitaldian 3.000 eurokoa izan zen.

Fundazioaren patronatuari buruzko informazioa

Fundazioaren Patronatuak honako osaera hau du 2019 eko abenduaren 31n:

Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorena, eta haren ordezkari gisa Ingurumen eta Obra Hidraulikoak Departamentuko Foru Diputatu José Ignacio Asensio Bazterra jauna (Lehendakaria), Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola Departamentuko Foru Diputatu Rafaela Romero Pozo andrea (Lehendakariordea) eta Obra Hidraulikoetako zuzendari nagusi Felix Joaquín Asensio Robles jauna (Idazkaria).

Eta batzordekideak:

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

Maite Barruetabeña Zenekorta, José Enrique Corchón Álvarez, Ainhoa Aizpurua Murua, Mónica Pedreira Lanchas, Harkaitz Millán Etxezarreta eta Jabier Larrañaga Garmendia.

Patronatuko kideek ez dute inongo ordainsaririk jasotzen. 2019eko abenduaren 31n ez dago indarrean Patronatuari emandako aurrerakinik edo krediturik, ezta pentsioen edo bizi-aseguruen alorreko obligaziorik ere.

Halaber, ez dago inongo kontratu-harremanik Patronatuko kideen eta Fundazioaren artean.

15.Oharra.- Ekitaldia itxi ondorengo gertaerak

2020ko martxoaren 14an, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena. Gero, 2020ko martxoaren 18an, 8/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen, martxoaren 17koa, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzkoa. Hasiera batean, hark hilabete bateko indarraldia izan zuen, baina luzatuz joan da, eta jarduerari eragiten dioten zenbait xedapen jasotzen ditu.

KORONABIRUS EDO COVID-19aren pandemiak azken data hauetan eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz igorri dira bi Errege Dekretuak, eta ez nazioan bakarrik, mundu osoan baizik. Bi arau horiek aplikatu eta betetzeko, pertsonen konfinamendua (beren etxeetan) eta mugimendu-askatasuna dekretatu behar izan dira, besteak beste.

Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioari ere eragin dio egoera horrek, eta bertako langileek (hiru pertsona) telelanaren bitartez lan egiten jarraitzen dute. Urteko kontu hauek egin direnean oso zaila da pandemiaren hedapenari eta hark ekonomian izango dituen ondorioei buruzko aurreikuspenak egitea, baina gure ustez, Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioak, bere egoera berezia eta hartzen ari den neurriak kontuan hartuta, bere ohiko jarduerari ekingo dio alarma-egoera amaitu bezain laster. Horrenbestez, egoerak ez du ondorio esanguratsurik izango Fundazioan, baina bai 2020ko ekitaldiko aurreikuspenetan, gure inguruko erakunde gehienetan gertatuko den bezala.

Gainera, eta emaitzen kontuan agertzen den moduan, erakundearen diru-sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenak dira batik bat, jarduera garatzeko transferentzia gisa egiten direnak. Horregatik, gertuko etorkizunean ere transferentzia horiek jasotzen jarraituko dugula uste dugu. Urteko kontu hauek egin diren bitartean ez dugu jaso jakinarazpenik edo informaziorik hurrengo ekitaldietan finantzaketa hori murriztu egingo dela esanez. Beraz, eta aurrez esandako guztiagatik, uste dugu Fundazioari eragin dakizkikeen ondorio negatiboak ez direla esanguratsuak edo oso esanguratsuak izango.

16.Oharra.- Hornitzaileei egindako ordainketa geroratuei buruzko informazioa. Uztailak 5eko 15/2010 legearen, "Informazio obligazioa", hirugarren xedapen erantsia.

Ordaintzeko batz besteko epea 7,25 egunetakoa da.

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

17.Oharra.- Inbentarioa

2019ko abenduaren 31rako Fundazioko inbentarioaren laburpena hurrengoa da:

20600000

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
DISEÑO DESARROLLO PAG WEB	18.150,00	0,00	4.723,97	13.426,03
	18.150,00	0,00	4.723,97	13.426,03

20800000

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
IMAGEN CORPORATIVA GAK DISEÑO	6.655,00	0,00	1.371,11	5.283,89
VIDEO INTRODUCCION	4.477,00	0,00	843,88	3.633,12
	11.132,00	0,00	2.214,99	8.917,01

21500000

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
DISEÑO DIGITAL ROTULAR	4.235,00	0,00	563,89	3.671,11
	4.235,00	0,00	563,89	3.671,11

21600000

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
LIBRERÍA 3D MOBILIARIO	968,00	0,00	136,85	831,15
	968,00	0,00	136,85	831,15


21600002

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
PIZARRA MAG-VIT BLANCA	383,47	0,00	2,05	381,42
	383,47	0,00	2,05	381,42

21700000

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
PORTATIL S. LAPTO 17/512/W10S	1.841,98	0,00	504,66	1.337,32
SAMSUNG GALAXY S9 BL	820,88	0,00	224,90	595,98
IMPRESORA KONICA MINOLTA BIZHU	4.201,12	0,00	1.067,54	3.133,58
ORDENADOR THINKCENTR M720	5.369,50	0,00	1.346,06	4.023,44
PROYECTOR EB-X3693LCD	576,77	0,00	144,59	432,18

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente



PORTATIL				
PORTATIL LENOVO L380 20				
MS COR	1.442,37	0,00	361,58	1.080,79
VIDEO INFOGRAFIA 3 D	12.499,30	0,00	3.236,11	9.263,17
AMPLIACION CENTRALITA	6.255,70	0,00	1.435,38	4.820,32
DOS LICENCIAS	2.032,51	0,00	25,31	2.007,20
	35.040,13	0,00	8.346,15	26.693,98

21700001

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
MONITOR 32" (2)	1.415,70	0,00	33,94	1.381,76
	1.415,70	0,00	33,94	1.381,76

21700002

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
CAMARA	1.205,16	0,00	75,12	1.130,04
PORTATIL Y MONITOR (4)	5.401,92	0,00	48,10	5.353,82
	6.607,08	0,00	123,22	6.483,86

21900000

Deskribapena	Zenbatekoa	Balio Res.	Metatutako amortizarioa	Saldo garbia
PLANTA DECORACION	2.225,00	0,00	199,95	2.025,05
	2.225,00	0,00	199,95	2.025,05
	80.156,38	0,00	16.345,01	63.811,37

Donostia, 2020ko Apilaren 30ean

D. José Ignacio Asensio Bazterra
Presidente

